




Gaualdien errekor berria abuztuan

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko abuztua. Milakoak




Iturria: Eustat.

Euskadiko hotel establezimendu-
etako gaualdiak urte arteko %5,7
hazi ziren abuztuan, 974.200etik
gertu geratuz, eta maximo histo-
riko berri bat erregistratuz serie
osorako. Urteko lehen zortzi hila-
beteetako metatuan, urte arteko
%3,4ko hazkundea izan zuten, eta
5.421.000tik gorakoak izan ziren,
errekor berria hau ere.

Esportazioak nabarmen hazi ziren uztailan

Atzerrira esportatutako ondasunen balioa
Urte bakoitzeko uztaila. Milioiak



Iturria: Eustat


Uztailan, atzerrira bidalitako
euskal esportazioak %11,5 gehitu
ziren urte batetik bestera. Haz-
kundea batez ere produktu energe-
tikoen esportazioek bultzatu zuten
(200,4), baina produktu ez energe-
tikoen kanpo salmentek ere bilaka-
era positiboa izan zuten, %6,2ko
aurrerapenarekin 2025eko uztaila-
rekin alderatuta.



Industriako prezioek goraka jarraitu dute abuztuan...

Industria prezioen indizea (IPRI)

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Abuztuan, industriako prezioek %6,2 egin dute gora Euskadin, aurreko urteko hilabete beraren aldean, eta martxoan hasitako goranzko bideari eutsi diote. Sektore handien arabera, energia izan zen bultzatzaile nagusia %29,0ko hazkundearekin, ondoren bitarteko ondasunak (%3,4) eta ekipo ondasunak (%0,7). Aitzitik, kontsumo ondasunek %2,5eko beherakada izan zuten.

... eta eraikuntzaren kostuak ere bai

Eraikuntzaren kostuen indizea

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Abuztuan, eraikuntzaren kostuak %7,3 igo ziren urte artean Euskadin, martxotik izandako tasa altuei eutsiz, ekainean hazkundera zertxobait apaldu bazen ere. Lehengaiak (%8,2) eskulana (%4,7) baino gehiago garestitu ziren. Sektoreka, kostuek gora egin zuten bai obra zibilean (%7,5) bai eraikuntzan (%7,2).